

Universitat de Vic–Universitat Central de Catalunya eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikertzaileak Bilbon elkartuko dira III. Ikerketa jardunaldian

2015/10/06

Urriaren 23an, Bilboko Bilbao Berrikuntza Faktorian egingo den III. Ikerketa jardunaldian, Universitat de Vic–Universitat Central de Catalunya eta MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikertzaileek hainbat bilera eta lan-saio egingo dituzte hezkuntzako berrikuntza eta esku-hartzearen ikerketari buruzko gaiak jorratzeko.

Egun osoko jardunaldiarekin, hurrengo helburuak betetzea espero dute bi unibertsitateetatik bildutako ikerlariak:

- Universitat de Vic–Universitat Central de Catalunya eta MONDRAGON UNIBERTSITATEAn hezkuntzako berrikuntza eta esku-hartzeari buruz lanean ari diren ikertzaileen lanak ezagutaraztea eta protagonisten artean esperientziak trukatzea.
- Indartzea bi unibertsitateek batera sustengatzen duten doktorego programa eta bi erakundeen arteko lankidetzak.
- Doktoregaiak trebatzea ahozko zein idatzizko komunikazioan.
- Bide ematea doktoregaiek eta doktorego-programara atxikitako ikertaldeetako ikertzaileek ikerketa-esperientziak parteka ditzaten.
- Bultzatzea bi unibertsitateen arteko ikerketa proiektuak.

Doktoregaien aurkezpenak, ikerlarien arteko mintegiak eta bilerak egiteaz gain, bi hitzaldi nagusi emango dira Bilbao Berrikuntza Faktorian: batetik, Pili Sagasta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikertzaileak *Del texto divulgativo a la producción científica: lecciones aprendidas* izeneko hitzaldia emango du. Bestetik, Toni Tort Universitat de Vic– Universitat Central de Catalunyaeko ikertzaileak *Tendencias internacionales en los estudios de doctorado* gaia jorratuko duen eztabaida zuzenduko du.

Bi unibertsitateen artean antolatzen den hirugarren edizio honetan, guztira, 25 ikertzaile elkartzea espero dute.

- [Jardunaldiaren egitarau osoa \(pdf\)](#).



Universitat de Vic–Central de Catalunya eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikerlariak elkartuko dira Bilbon.